

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1092

183/2017 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez aldatu egin da 1726/2015 Ebazpena, urriaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Laborategiko Teknikari Espezialisten kategoria kalifikatzeko epaimahaia izendatzen zuena.

Indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenen arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Aldatzea 1726/2015 Ebazpena, urriaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Laborategiko Teknikari Espezialisten kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautatze probetarako kalifikazio-epaimahaia izendatzen zuena. Ondorengoak dira aldaketak:

a) María Cruz González Palomino andrea, hirugarren epaimahaikide titularra izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) Ricardo Corres Medrano jauna, hirugarren epaimahaikide titularra izendatzea.

Bigarrena.— Ebazpen hau EHAAn argitaratzea agintzea.

Hirugarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.